

## GIG 34

## MARIANTON PUNTAKO BLOKE ERORIAK

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Marianton punta Itzurun hondartzaren ipar-ekialdeko erpinean dago, eta bloke erori handi-handien pilaketa ederra dauka oinean. Tamaina metrikoko turbidita dira denak, alboko itsaslabarretik behera eroriak. Eredu honetan, segida eozenoa turbidita lodiz osatuta dago, eta *matrize* tupatsu batean tarte-katuta daude horiek; eragile atmosferikoez erraz higatzen duten matrize batean, beraz. Hori gertatzen denean, tupek ezin izaten diote eutsi turbiditen pisuari, eta azkenean erori egiten dira, bloke handiak, gainera.

Blokeak modu kaotikoan daude, eta oro har, erpin eta ertz zorrotz samarrekoak dira; horregatik, pentsatzekoa da oraindik ez direla oso arrastatuak izan eta, horrenbestez, orain dela nahiko gutxi erori zirela.

Bloke-eremu horren alboan beste luizi bat ere badago, eta bigarren horrek tupei eragiten die; euri-jasak izaten direnean, izan ere, maiz erortzen dira, eta morfologia konikoko luiziak sortzen dira horrelakoetan.

## NOLA BERTARATU

Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidean behera jaitsi behar da lehenbizi, eta gero, blokeak gertutik ikusi nahi izanez gero, Itzuruntxikira igaro behar da; baina ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke bertara, eta arriskutsu samarra da.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ* edo Itzurun hondartza.



Bloke batzuek 20 m<sup>3</sup>-ko tamaina ere badute.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 560032 m / Y= 4794681 m / Alt.= 1 m



Turbidita lodi hori itsaslabarrean behera erortzeko zorian dago, alboko tupen higadurak eraginda.